



BiziON

Zaintza Plan Estrategikoa
Plan Estratégico de Cuidados

ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA

ehbildu

1. TESTUINGURUA.....	5. orrialdea
2. ZER DA ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA?.....	7. orrialdea
3. PRINTZIPIOAK	9. orrialdea
4. HELBURUAK	11. orrialdea
a. OROKORRA	
b. BEREZKOAK	
5. METODOLOGIA.....	13. orrialdea
a. HOBEKUNTZA ILDOAK	
6. KRONOGRAMA	17. orrialdea
7. AURREKONTUA	19. orrialdea

1. TESTUINGURUA

¿Zein da Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua-aren egoera?

Gaur egun hainbeste aldiz entzuten ari garen zaintza krisia ez da sortu pandemiaren eraginez. Noraeza neoliberalaren ondorioz esparru publikoan eskaintzen diren zaintzak (gaur gaurkoz zaintza alorrean gutxiengo direnak) privatizatzen ari dira etenik gabe, irabazi asmoa bilatzea lehenetsita, hala ematen nola jasotzen dituztenen zaintza lan duinen kalterako. Bizi itzaropena luzatzeari lotutako negozio berri bat sortzeko asmoz urte luzez ezarri den prekarizazioaren eta privatizazioaren ondorio da, zaintzen prekarizazioan oinarritutako negozioa. Hau da, adineko pertsonen bizkarretik negozioa egin nahi da.

Gelditzeko unea da. Krisi honek balio behar du eredu aldaketa bat abian jartzeko, zaintza krisia atzean uzteko norabide berri batekin. Kalitatezko eta ardura publikoko zaintzen aldeko apustua egin behar da. Horixe izan behar du helmuga zaintza publikoentzako.

Babes mota ezberdinen arteko elkarrekintzan oinarrituta behar dute zaintza horiek, non zerbitzuak eskaini eta egokituko diren pertsonen beharren neurria. Babes eskaintza horren barruan, Etxez etxeko laguntza zerbitzua atal ezinbestekoa izango da.

2. Zer da Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua?

Asistentzia eta prebentzio izaera duen zerbitzua da, eta horren xedea da laguntza ematea dependentzia egoeran edo arriskuan dagoen erabiltzeari, bere etxebizitzan bizitzen jarrai dezan. etxeko arreta eta arreta pertsonala eskainiz Pertsonak bere etxebizitza propioan eta ingurune komunitarioan aritzea ahalbidetzeko, etxeko arreta eta arreta pertsonala eskainiko zaio, eta nahigabeko isolamendu egoerak gertatzea eragotziko da. Geure etxean bertan kalitatezko arreta eskuratzea ahalbidetu behar duen tresnetako bat da, azken finean.

1980ko hamarkadaren erdialdean abiatu zen zerbitzu honen ibilbidea geure herrialdean. 2008. urtean 4.923 adinekoko eta dibertsitate funtzionaleko pertsonari arreta eskaintzen zien. Orain arte 2 eta 3 graduetako dependentzia egoeran dauden pertsonen arreta Arabako Foru Aldundiak bere gain hartu du, eta Gasteizko Udalaren ardurapean geratu dira autonomia pertsonalaren sustatzea nahiz 1 graduko arreta. 2015. urtean, Zorro Dekretua indarrean

sartu zenean, Gasteizko Udalaren eskuetan utzi zen zerbitzuaren kudeaketa osoaren eskumena, etxez etxeko laguntza zerbitzuaren lehen arretako eta prebentzioko izaeratik. Hala ere, erakundeen arteko berrantolatze prozesu bat izaten ari den zerbitzua da, 2022. urteko urtarrilaren 1ean amaitu beharko dena. Zerbitzu honen eskaera handitu da urtez urte, eta bizi itxaropena handitzeak eragin duen populazioaren zahartzeari lotuta, gora egin du bere kostuak.

Egokitzapenak eta erakunde arteko eskumen aldaketak baliatuz, 2020. urtean hainbat saiakera bizi izan ditugu etxez etxeko laguntza zerbitzua prekarizatzeko eta murrizteko. Zerbitzu hau bada eta izango da zaintzarako oinarrizko tresna bat, baina aldaketu beharra dago. Geure zaintza ereduaren barruan, Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren azken helmuga munizipalizazioa da, zaintzetan dagoen ardura publikoarekiko apustua indartzeko bide bezala. Helmuga horretara iristeko prozesua diseinatu behar dugu gaur egungo eredu higitu, prekarizatu, eta ez eraginkorretik abiatuta,

Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren eredu publiko eta kalitatezko bateraino .

Etxez etxeko laguntza zerbitzua tresna funtsezkoa da, baina eskaerari eta egungo egoera ezberdinei egokitu behar zaie. Beharrezkoa da norabidea aldatzea, pertsonen euren etxeetan jarraitzea bermatu eta erraztuko dien benetako tresna izan dadin. Beharrezkoa da zerbitzua indartzea, malgutzua, dibertsifikatzea, aberastea eta espezializatzea. Azken finean, zerbitzua hobetu behar da. Gertuko ingurunean, komunitatean, errotutako zainza estrategia baten funtsezko elementu bilakatu behar da

Arreta zerbitzu PUBLIKO ETA KALITATEZKOA. Prozesu luze bati ekin behar diogu, privatizazioaren urte luzeetan atzera egin behar da, eta horretarako beharrezkoa da erdibideko urratsak ezartzea.

Zerbitzu honen hobekuntza ezinbestekoa da pertsonen autonomia sustatu eta dependentzia atzeratzea lortzeko. Horrek ahalbidetuko luke norbere etxean ahalik eta denbora gehien bizitzen segitzea, adineko pertsonen %80k aukeratzen duen egoera (Eustatek egindako txostenaren arabera), eta atzeratuko luke intentsitate maila handiagoa duten beste zerbitzu, babes eta programa batzuetara jotzeko unea, horien artean egoitza batera joan behar izatea. Gaur egun, Etxez etxeko laguntza zerbitzua Arabako gizartean ezaguna da eta aitortza egiten zaio, eta ibilbide handia eginda du honezkero geure herrialdean. Zaintzarako tresna funtsezkoa da, baina, era berean, hobetzeko moduko

hiru atal handi dituen zerbitzua da: zerbitzuaren kalitatea bera (malgutasuna), jasangarritasun ekonomikoa, eta langileen lan baldintzak. Egoerai buelta eman behar zaio. EH Bildun sinetsita gaude zerbitzu ona emateko, horren garrantzi handia duen lan bat ondo egiteko, baldintza ezinbestekoa dela lan eta soldata baldintza duinekin egitea. EH Bildurentzat lehentasuna da zerbitzu hau eta bere profesionalak hornitzea eta behar duen balioa ematea, Etxez etxeko laguntza zerbitzua erabilgarria eta eraginkorra izan dadin adineko pertsonen zaintzarako.

3. PRINTZIPIOAK

- **BABESEN PARADIGMA:**

Babesek gaitasunekin eta testuinguruarekin duten interakzioaren emaitza da pertsona bakoitzaren funtzionamendua. Pertsonaren garapena, interesak eta ongizate pertsonala sustatzen dituzten baliabide estrategiak dira babes horiek, banakako funtzionamendua handitzeko helburuarekin. Etxez etxeko laguntza zerbitzua tresna edo babes zuzenetako bat da, prebentzioan oinarrituta, baina ezin da bakarra izan, eta txertatu behar da babesen eskaintza zabal baten barruan.

- **PERTSONA ETA HARREMANAK ARDATZ DITUEN PLANIFIKAZIOA:**

Pertsona eta harremanak ardatz dituen planifikazioa: Zerbitzuaren pertsona erabiltzailea bera da aukeratzen duena nahi eta behar duen esku-hatzearen atal guztiak, bere behar eta lehentasunak aintzat hartuta: laguntzaren ordutegiak, funtzioak...

- **BIZI KALITATEA:**

Ekintza guztiek eragin behar dute pertsonaren bizitza kalitatearen hobekuntzan. Etxez etxeko laguntza zerbitzuak tresna erabilgarria izan behar du, erabiltzailearen bizitza kalitatea hobetzeko bidean.

- **NORBERE ETXEAN JARRAITZEA**

Norbere etxean jarraitzea: Etxean kalitatezko bizitza bat ahalbidetzeko beharrezkoak diren laguntzen maiztasuna eta intentsitatea eskaniko dira, eta eragotziko da zaintzen arduraren erortzea familien, eta, ondorioz, emakumeen bizkarrean. Etxebizitzan egindako zaintzak ulertu behar ditugu arduraren publiko bezala.

- **ESKUBIDEEN IKUSPEGIA:**

Zerbitzu sozialak herritarren eskubide subjektiboa dira, ongizatearen zutabeetako bat. Zaintzak ematen zein jasotzen dutenen eskubideak aintzat hartzen ditugu, edozein pertsonak zainduta izateko duen eskubidea errespetatuz, baina zaintza horiek emateko beharra inposatuta ez izateko eskubidea onartuta ere. Halaber, onartzen dugu Etxez etxeko laguntza arloko eta beste zerbitzuetako profesionalek lan baldinza egokiak izateko eskubidea.

- **IKUSPEGI INTERSEKZIONALA:**

Etxez etxeko laguntza zerbitzuko erabiltzaileak ez dira kolektibo homogeen bat, eta diskriminazio egoera handiagoak dituzten

kolektiboak badaude: pertsona arrazializatuak, migratzaileak, LGBTBI pertsonak, dibertsitate funtzionala dutenak, etab. Ikuspegi paternalista batetik harago jo behar dugu, eta BETI kontuan hartu erabiltzaile guztien abiapuntua ez dela berdina zerbitzua eskatzerakoan. Banan banakako arreta lantzea eta tresna ezberdinak erabiltzailea eskatuko du izaera horrek.

- **IKUSPEGI KOMUNITARIOA:**

Lan egin behar da Etxez etxeko laguntza zerbitzuko erabiltzaileak bizi diren komunitateko harreman ikuspegiarekin, elkarrenganako zaintza ikuspegi batekin, pertsonak komunitataren protagonista izango direlarik.

- **KUDEAKETA PUBLIKOA DUEN ARRETA EREDUA:**

Zerbitzuak kudeaketa publikokoak eta kalitatezkoak izan daitezten prozesua diseinatu behar da. Zerbitzu guztiak kolpe batez publikatzeko zailtasunen jakitun, diseinatu behar da pribatizazioekin nola egin atzera, eta nola hobetu nabarmen baldintzak bitarteko publikoetan eta arretaren kalitatea. Lan baldintzak hobetu behar dira, eta langileak ahaldundu arretaren kalitatea hobetzeko zutabe gisa (Zaintzen dutenak zaindu arreta hobetzeko modu bezala).

- **ARRETA KALITATEA ETENGABE HOBETZEA:**

Etengabeko ebaluazioan eta formakuntzan oinarrituta. Eskainitako arretaren ebaluazioa etengabe egingo da hobekuntzarako tresna bilakatu dadin.

4. HELBURUAK

HELBURU OROKORRAK

Beharrezkoak diren babesak bermatu, hala nahi duten pertsoneri euren etxebizitzan kalitatezko bizitza izaten jarraitzeko aukera ematea.

• HELBURU ZEHATZAK

o Pertsonen autonomia mantentzea eta hobetzea, okertzeari aurrea hartzea, eta erabiltzaileen autonomia galera konpentsatzea. Horri begira, laguntza partziala eta osoa eskainiko da aurre egin ahal izateko eguneroko jarduera oinarrizkoei, zaintza pertsonal baterako beharrezkoak direnei, edota eguneko bizitzaren bestelako jarduera instrumentalei.

o Ahalbidetu, beti ere bideragarria den neurrian, pertsona batek bere ohiko etxebizitzan ahalik eta denbora gehienez bizitzen jarraitzea, bizitza kalitate onargarri batekin, egoitza batera joan behar izatea atzeratzen edo eragozten.

o Erabiltzaileen segurtasun sentimendua indartzea.

o Erabiltzaileen babes sare soziofamiliarra osatzen duten pertsona zaintzaileei babesa ematea, eta euren arreta eginbeharretatik partzialki askatzea erraztu, euren garapen pertsonal, profesional eta sozial propioetarako baldintza egokiak izan ditzaten.

o Pertsona zaintzaile nagusia, normalean erabiltzaileari arreta ematen diona, noizbehinka ordezkatzeta (arnas modalitatean).

o Beste zerbitzuetatik esku-hartzea eska dezaketen behar egoerak atzematea.

Nola gauzatu helburu hauek?

ADINEKO PERTSONENTZAKO ZERBITZU AGIRIA: Etxez etxeko laguntza zerbitzua atal ezinbestekoa da adineko pertsoneri arreta emateko zerbitzu, laguntza eta babes eskaintzan. Zerbitzu eskaintza horren asmoa da kalitatezko zaintza publikoen sare bat eratzea, pertsonen bizitza kalitatea hobetzeko xedearekin. Eskaintza zabal hori kontuan hartuta (dirulaguntzak, Etxez etxeko

laguntza zerbitzua, Eguneko zentroak, Bizan zentroak, Arnasgune zerbitzuak, Jangelak, Gizarte-etxeak, Alojamentu baliabideak...) Banakako Babes Plana diseinatuko da, erabiltzaileak eta bere inguruak aukeratuta kalitatezko bizitza bat izateko beharrezkoak diren babes eta baliabideak.

PREBENTZIO ATALA: Profesionalen eskuetan jarritako tresnetako bat izango den zerbitzua, atzemateko asmoz adineko pertsonen artean egon daitezkeen zaugarritasun egoerak, osasun fisiko eta mentalaren okertzeak, eta nahigabeko bakardadea egoerak. Beti ere pertsona erabiltzaileen bizitza kalitatea hobetzeko azken xedeari erantzune, Pertsonan Oinarrituako Plangintzaren bidez eta in(ter)dependentzia maila ahalik eta handienei eutsita.

5. METODOLOGIA

Nola garatu Etxez etxeko laguntza zerbitzua?

EH Bilduren ustez hau da jarraitu beharreko METODOLOGIA eta ezaugarriak:

Zerbitzu hau, hasieratik pribatizatua izan zena, zerbitzu publiko bihurtzeko prozesuari ekin behar zaio, eskumena duen udal erakundeak bere eginda. Prozesu honek izan beharko ditu erdibideko helburuak eta kudeaketa zuzena helburu duen garapen jarrai eta mailakatua. Badakigu ezinezkoa dela zerbitzua egun batetik bestera publikatzea, baina publikazio prozesu progresiboa diseinatzea da geure apustua, zerbitzu publiko, ahaldundu eta kalitatezko bat ahalbidetzeko. Bide horretan, azaldu dugun bezala, uneotan zerbitzua ematen ari diren profesionalen lan baldintzak babestuko dira, eta Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren kalitatea hobetzeko aurrera egingo da, zerbitzuaren publikazioa helmuga argia izanik.

HOBETZEKO ILDOAK / EH BILDUREN PROPOSAMENA:

Etxez etxeko zerbitzua ahaldundu behar dugu. Horretarako beharrezkoa da bi hobekuntza ildo funtsezkotan aurrera egitea:

- Zerbitzuaren eta bere profesionalen ahalduntzea.
- Zerbitzuaren beraren hobekuntza.

Bi ildo horiek nola gauzatuko diren garatuko dugu:

Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren eta langileen ahalduntzea:

1. Langileen lan baldintzen hobekuntza: Etxez etxeko laguntza zerbitzuko langileak ezinbestekotzat jo behar dira zaintza lanerako.

Ekonomikoak: Funtzionarioak diren langileekin parekatuko zaizkie baldintza ekonomikoak. Ez da baimenduko zeharkako kudeaketa zerbitzuaren kostuak merkatzeko modu bezala.

Ez ekonomikoak: Baldintza sozialak hobetzea.

Profesional horiek eskumen publiko bat garatzen duten langiletzat hartuko dira. Etxez etxeko laguntza zerbitzua udalaren eskumena eta ardura da. Zerbitzua ematen ari diren langileak udal langiletzat jo behar dira. Udala da zerbitzua eskaintiaz arduratzen dena, eta langileek ardura publikoaren menpeko zerbitzu bat ematen ari dira. Adibideak: lanerako jantziak, laneko udal espazioak, langileak udal zerbitzu bateko langile bezala identifikatzeko moduak...

2. Orduategien eta eginbeharren birdefinizioa: Laneko txandak antolatzeke eredu berri bat. Txandak antolatuko dira langileen lan eskubideak erespetatuko dituen modu baten arabera, oreka bilatuz lan baldintza horien eta zerbitzuaren kalitatearen artean. Zerbitzuak pilatuko dira lanaldiak bidezko eta arrazoizkoak izan daitezen: goizeko eta arratsaldeko txandak ezartzeko aukera.

3. Koordinazioa: Koordinazio lanetarako denbora eskaini behar da. Arretarako txandak berregituratzen aurrera egiten badugu, gertatu liteke zerbitzuko bi langile ezberdinek etxebizitza berdinerara joan behar izatea; horrelako egoeretan ezinbestekoa da langile horien arteko koordinazioari denbora tarte bat eskaintzea, eta gauza bera koordinatzailearekin, Langile Sozialarekin, eta arretan esku-hartzen duten disziplina arteko ekipoekin aritu behar direnean. Sartu-irteeretan Etxez etxeko langileei koordinatzeko espazio eta denbora bat jar behar zaie (Hamar minutu).

4. Lanerako espazio propioa: Arreta eskaintzerakoan langileek etxebizitza batetik bestera joan behar dute, eta ez dute inolako espaziorik arropa aldatzeko, koordinazio lanak egiteko, elkar

ezagutzeko, edota informazioa nahiz esperientziak trukatzeko... Aldagelak, armairuak, koordinazio gelak, formakuntzako aretoak... paratzeko espazioak martxan jarri behar dira.

5. Formakuntza: Ikuspegi interseksional-feminista batetik heldu behar zaio. Zerbitzuak propio dituen eginbeharretan oinarritu behar da, horien artean honako hauek: adineko pertsonen arreta, dibertsitate funtzionalekoei, adin txikikoei, edo zaurgarritasun egoeran dauden familiei. Laguntza, harreman esparrua, edota lan egiten dituzten pertsonen izaeren ezaugarrien ezagutza landuko dira, besteak beste.

Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren kalitatea hobetzeko:

1. Arreta zuzenerako orduak nabarmen handituko dira. Oinarri gisa, astero sei orduko arreta zuzena eskainiko zaie 0 gradukoei, 14 ordu astero 1 gradukoei, 20 ordu astero 2 gradukoei, eta astero 30 ordu 3 gradukoei.

2. Malgutasuna / Egokitzapena: Adineko pertsonen zuzendutako baliabide eta zerbitzu beste guztiekin bezala, erantzunak eta eskaeren aldaketak bizkor eta malgutasunez egingo dira, momentuoro arreta jasotzen duten pertsonen ahalik eta kalitate handiena izan dezaten. Gradu guztiak modu bizkor eta eraginkor batekin handitu ahalko dira, zaintza indartzea eskatzen duten ezohiko baldintzak daudenean. Erantzunak, gehienez ere, 24-72 ordutan emango dira. Zaintza ordutegiak handituko dira, eta gaueko ordutegia aintzat hartuko da.

3. Laneko soslaien dibertsifikazioa: Zerbitzu bakoitza beharrezkoak diren profesional guztiekin eskainiko da, erabiltzaileei zaintza eta arreta egokia bermatzeko, eta zerbitzuko langileen soslai tekniko dibertsifikatuko da, besteak beste psikologoak, fisioterapeutak, edo erizain laguntzaileei sarrera emanaz. Zaintza mota batzuk, bereziki dependentzia gradu handienak dituzten pertsonen dagozkienak, etxebizitza berdinean profesional bat baino gehiago aritzea gerta daiteke. Geriatria/Gerontologia soslai duten profesionalak sartuko dira disziplina arteko arreta ekipoen barruan.

4. Lankidetzeta eta koordinazioa: Babes sare ezberdinekin aritzea: formalak (osasun sarea, zerbitzua sozialak...) eta informalak (familia, lagunak, sare komunitarioak, bolondresak...). Arreta jasotzen duten pertsonen, euren familiaren (baldin balego), eta arreta ematen duten profesional guztien arteko koordinazioa ezinbestekoa da egoki artatu nahi baditugu. Beharrezkoak diren komunikazio bideak ezarriko dira koordinazio egokia bermatzeko Etxez etxeko laguntza zerbitzuko profesionalen, erreferentziazko langile sozialaren, lehen arretako osasun langileen, eta, beharrezkoa balitz, Buru Osasun zentroko langileen artean. Familiarekin lankidetzeta funtsezkoa izango da kalitate paradigma baten azpian, baina familia ezin du inolaz ere bere gain hartu zerbitzuak dituen gabeziak.

5. Zerbitzuko funtzioak egokitzea eta dibertsifikatzea: Etxez etxeko laguntza zerbitzua arreta eta babes eredu osoa izango da; laguntza fisikoa eta psikologikoa eskainiko du; arreta jasotzen duten pertsonen aisialdia, errehabilitazioa, eta ongizate emozionala

sustatu eta lagunduko ditu, baita euren parte-hartze komunitarioa ere. Etxez etxeko laguntza zerbitzuak erantzun osoa eman beharko die pertsonen beharrei, nahigabeko isolamendu egoeren gainean arreta berezia jarrita, laguntzaren kontzeptua tresna ezinbesteko modura ulertuta.

6. Kasu koordinatzailea: Zerbitzua lizitzatzeko baldintza-agirian arreta kopuruaren arabera kasu koordinatzaile kopurua ezarriko da. Etxez etxeko laguntza zerbitzuan koordinatzaile bakoitzeko kasu kopurua 80 eta 100 bitartekoa izango da (Adinekoen Elkarguneko lantaldeak egin duen proposamena). Kasu koordinatzailea udal zerbitzuko langile sozialarekin elkarlanean ariko da, eta, aha lden neurrian, espazio eta ordutegi berdina izango dute.

7. Zerbitzuaren hasiera: Gaur egun, pertsona batek dependentzia balioespen bat eskatzen duen unetik irizpena ematen zaion arte 240 eguneko da batez besteko atzerapena. Adineko pertsonengan balizko zaurgarritasun eta babesgabetasun egoerak eragozteko, zerbitzua eskaini ahalko da dependentzia baliospena eskatzen den momentutik irizpena iristen den arte, 0 graduko dependentzia mailari dagokion gutxienezko ordu kopuruarekin, edo irizpide profesionaleri jarraituz prebentziorako beharrezkotzat jotzen diren esku-hartzeekin.

8. Esku-hartzea eta jarraipena: Etxez etxeko laguntza zerbitzuko langileen eta erabiltzailearen arteko elkarriketa egingo da jarraipenaren hasieran, eta gutxienez urtean behin errepikatuko

da, erabiltzaile bakoitzak zerbitzuari buruz daukan iritzia eta ebaluazioa eguneratzeko. Esku-hartzearen oinarri bezala, Banakako Arreta Plana erabiliko da, eta horretan jasoko dira helburuak, metodologia, kronologia, eta erabiltzaileak zerbitzua erabiltzeko dituen beharrak eta lehentasunak.

6. KRONOGRAMA

Nola planteatzen dugu prozesu hau egitea?

Zaintzaren kudeatzean jokoaren arauak aldatuta. Privatizazioaren bide luze batean atzera egitea dagokigu. Hori dela eta, geure proposana da Etxez etxeko laguntza zerbitzu publiko bat lortzea 2030 urterako, eta ordura arte erdibideko urrats batzuk egin behar dira, profesionalen baldintza ekonomiko egoki batzuk izango dituzten kalitatezko zerbitzu bat izateko.

Arreta publikoko eredu hau lortu arte, zerbitzua duintzeko aurrerapusuak egin behar ditugu. Nola egin? Zerbitzuaren eta bertan lanean ari diren profesionalen ahalduntzea sustatuz. Langile publiko gisa balioa aitortu behar zaie, euren lan baldintzak hobetu behar dira, lanak koordinatzeko denbora eman behar zaie, berriazko formakuntza, kasu ratio txikiagoa izango duten koordinatzaileak sartu behar dira...

1. Zerbitzua emateko kontratuen esleipena. Sektore Publikoaren Kontratu Legean oinarrituta, klausula sozialak ezarriko dira zaintza eremuan irabazi asmoa mugatzeko. Profesionalen lan baldintzak egokituko dira, sektorean dagoen prekaritateari buelta emateko helburuarekin. Era berean, sindikatuarekin eta enprekin lan egingo da baldintzak arautuko dituen lan hitzarmen bat lortzeko.

2. Lankidetzeta, koordinazio eta jarraipen esparru berriak kontzertazioarekin eta subrogazioarekin. Etxez etxeko laguntzarena ardura publikoko zerbitzua da, hain zuzen ere udalen eskumena. Udal erakundea da zerbitzua eskaintzen duena, eta etengabeko jarraipena egin behar dio ziurtatzeko arretaren zein enpleguaren kalitatea. Zerbitzuaren kanpo ikuskaritza egingo da bere kalitate baldintzak egiaztatzeko, bai erabiltzaileei dagokionez, bai profesionalen dagokienez. Ekinbide pribatuen eta zerbitzu bakoitza garatzeko moduen tutoretza eta gainbegiratzea proposatzen dugu eskumena duen erakundearen aldetik. Halaber, zerbitzuan ari den profesionalen baldintza ekonomikoek sektore publikokoekin parekatzeko bidean aurrera egin behar dute. Datorren legealdian lan baldintzen hobekuntza prozesu bat abiatzea proposatzen dugu, sektore publikoarekin parekatu arte. Horrekin amaituko litzateke low cost zaintza ereduarekin, eta ahaldunduko lirateke zerbitzua, langileak, eta baita ere zaintza lanak eta bizitzari eustea, zentralitatea emanez.

3. Hamar urte barru, behin parekatzeko prozesua amaieraraino eramanda, Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren publikazioa gauzatzeko moduan egongo ginateke.

:

2022-2023	2023-2026	2026-2030
<p>Lan itun propia</p> <p>Klausula sozialak</p> <p>Kanpo Ikuskaritza</p>	<p>Langile publikoekin parekatzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> - lan baldintzak - soldata -hobekuntza sozialak 	<p>Langile publikoak</p> <p>Administrazioan sartzeko prozesua</p>

7. AURREKONTUA

2022. urterako Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren esleipenak honako aurrekontua du aurreikusita:

2022	Aurrekontua
Kontratua	13.319.626,92 €
Aurreikusitako egokitzapenak	2.663.965,38 €
Guztira	15.983.792,30 €

Udalak berak egindako aurreikuspenen arabera, erabiltzaile kopurua %10 eta %20 bitarte haziko da. Hori dela eta, EH Bildutik aurrekontuaren honako igoera proposatzen dugu:

- Kontratuaren oinarria: Kontratua %15 handitzea (2 milioi €), zerbitzua hobetzeko bidean aurrera egin ahal izateko:
 - o Erabiltzaile bakoitzari orduko eskaintzen zaizkion arreta minutuak handitzea
 - o Profesionalen lan baldintzak hobetzea
- Kontratuaren egokitzapenak %20 handitzea (500.000 € baino gehiago), 2022. urtean udalak zerbitzua osorik bere gain hartzeko egin beharko dituen aldaketei aurre egiteko. 2023. urtean Etxez etxeko laguntza zerbitzuak duen aurrekontua berrikusiko da, indarrean jartzen den lan hitzarmenaren arabera.

ehbildu



gasteiz.ehbildu.eus



gasteiz@ehbildu.eus



EH Bildu Gasteiz



[@ehbildugasteiz](https://twitter.com/ehbildugasteiz)



EH Bildu Gasteiz



[@ehbildugasteiz](https://www.instagram.com/ehbildugasteiz)



EH Bildu Gasteiz